



Nazioarteko Kooperatiba Aliantza



Global Office: 150 Route de Ferney - C.P. 2100 - 1211 Geneva 2 – Switzerland
Tel: +41 (22) 929 88 38 - Fax: +41 (22) 798 41 22 - ica@ica.coop - www.ica.coop - www.2012.coop

Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren (NAK) mezua

Kooperatiben 90. Nazioarteko Eguna NBE Kooperatiben 18. Nazioarteko Eguna 2012ko uztailaren 7a

2012ko Kooperatiben Nazioarteko Eguna esanahi berezia duen eguna da, Nazio Batuek erabaki baitute 2012a Kooperatiben Nazioarteko Urtea izango dela. Ospakizun berezi horren harira, Nazioarteko Urterako aukeratu den gaia Nazioarteko Egunean erabiliko den berbera izango da: 'Kooperatibek mundu hobea eraikitzen dute'.

Kooperatiben Nazioarteko Urtean, kooperatiben historia jende multzo zabalago bati helarazteko aukera paregabea daukagu. Gurea ez da iraganeko gertakizunen historia hutsa; euren baliabideak sendotu, merkatuetara sartu eta prezioen negoziazioaren oreka berrezartzeko helburuarekin une ekonomiko gogorretan elkartzen diren norbanakoen historia baino zerbait gehiago da gurea. Kooperatiben enpresa ereduaren erresistentzia eta egonkortasuna orainaldirako mezua da, oroz gain.

XXI. mendean ekonomiak jarraitu behar duen bidean, Kooperatibak gako garrantzitsua dira. Azken urteotan, argi eta garbi geratu da munduak ekonomia global dibertsifikatuagoa beharrezko duela.

Kooperatibek dibertsifikazio horretan laguntzeko gaitasun handiagoa daukate. NAKen Global300 Txostenaren arabera, munduko 300 kooperatiba handienek 1.6 trilioi USD-ko urteko fakturazio konbinatua daukate gaur egun, herrialde handi askoren BPGaren tamaina berekoa. Kooperatiba horiek 100 milioi lanpostu dituzte mundu osoan. Brasil, Errusia, India eta Afrikan, herritarren %15 kooperatiba bateko langile-bazkidea da; enpresen akziodunak, ordea, %4 besterik ez dira. Kenyan, kooperatibak BPGaren %45 dira, eta Zeelanda Berrian, aldiz, %22. Estatu Batuetan, ostera, 30.000 kooperatibek bi milioi langile dituzte, eta Fortune aldizkariak argitaratzen duen 100 enplegu onenen zerrendako tokirik altuenetan agertu ohi dira.

Kooperatibak balioetan oinarrituriko enpresak dira, eta beste enpresa-eredu nagusiekin alderatuta, bere gobernuan parte-hartzeko aukera gehien eskaintzen dituen eredia da. Bere bazkideen konpromisoari esker, kooperatibak komunitatearen balioen isla dira. Hastapenetik, bere ondasunak ekoizteko eta bere zerbitzuak eskaintzeko moduaren gaineko adura izan dute. Iraunkortasunarekiko konpromisoa da kooperatiben zazpi Printzipio nagusietako bat, 100 herrialdeetako NAKeko kideen arabera.

Printzipio horiek guztiak –ekitatea, parte-hartzea, iraunkortasuna- elkartu, eta lan duina garatu ahal izateko espazio bizi eta egokia bihurtzen dira kooperatibak. Sektore guztietan, hala nekazaritza, arrantza eta basogintzan nola banku-kooperatiba eta kreditu-kooperatibetan; eraikuntza eta osasun arretan zein mutua eta aseguru-kooperatibetan; eta batez ere, lan elkarteen sektorean, kooperatibek enplegu duinak sortzen dituzte, kontsumitzaileen konfiantza bereganatzen dute eta beste edozein enpresa-ereduk baino bitzita luzeagoa daukate. Azken finean, mundu hobea eraikitzen ari dira.

KOOPERATIBEK MUNDU HOBEA ERAIKITZEN DUTE



NAK 1895ean jaio zen, kooperatiba-ereduan sakontzeko helburuarekin. Gobernu-arteke eta gobernu kanpoko erakundeekin lan egiten du kooperatiben garapena bultzatzeko; herrialdeetako gobernuarekin lanean aritzen da, kooperatiben behar espezifikoak aintzat hartuko dituen lege-esparruaren alde egiteko; eta bere kideekin lankidetzan aritzen da, elkar-lankidetzan sustatzeko.

NAKek mundu osoko kooperatibistei dei egiten die, urte berezi honetan egingo den Kooperatiben Nazioarteko Egunean, euren historia kooperatiboa kontatu dezaten. Historiak eskuragarri daude www.stories.coop webgunean.

Kooperatiben Nazioarteko Eguna ospatzeko, NAKek, Global News Hub-en laguntzarekin, hainbat liburu elektroniko prestatu ditu, kooperatibek mundu hobearekin nola eraikitzen duten erakusten dutenak. Liburuok "Co-operatives United" ekimenaren aurretik argitaratuko dira. Ekitaldi hori izango da, hain zuzen ere, Kooperatiben Nazioarteko Urteari amaiera emango diona, eta Manchesterren ospatuko da, 2012ko urrian. Ekimen birtual horren inguruko informazio gehiago eskuratu edo Manchesterren egingo den bisita programatuan parte hartzeko, jo ezazu www.manchester2012.coop webgunera. Bitartean, www.thenews.coop/virtual webguneko liburu elektronikoak deskargatu ditzakezu, kooperatiben berezitasunak ezagutu ahal izateko.

KOOPERATIBEK MUNDU HOBEA ERAIKITZEN DUTE

